



Usurbilgo Udala



## 2015EKO MARTXOAREN 31N EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Mertxe Aizpurua Arzallus A.

#### Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaca A.  
Josu Portu Alzaga J.  
Jone Urdampilleta Urdampilleta A.  
Jose María Rivadeneyra Sicilia J.  
Enara Arbizu Irurtia A.  
Iñaki Ugarte Aguirre J.  
Eustakio Arrojeria Eguzkiza J.  
Jose Ramon Furundarena Salsamendi J.  
Luismari Ormaetxea Santsiñena J.  
Miren Josune Urquia Carrera A.  
Josune Urkola Larrarte A.  
Ricardo Crespo Rubio J.

**Idazkaria:** Nagore Sarasola Otermin A.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2015eko martxoaren 31n, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Mertxe Aizpurua Arzallus izan da Batzarburua.

Gai-zerrendako puntuei heldu aurretik, alkateak Nagore Sarasola idazkariari azkena izango duen plenoan eskerrak eman dizkio herriaren eta udaletxe honen alde egindako lanagatik eta Garazi Etxeberria idazkari berriari ongietorria eman dio. Garazik Sukarrietako eta Mañariako idazkari-kontuhartzaile hautaketa prozesuak gaintitu dituela jakinarazi du.

### 1.- AKTEN ONESPENA:

**\*2014/12/22KO EZOHIKO BILKURAKO AKTA.**



Usurbilgo Udala



Batzarkideek, 2014ko abenduaren 22ko ezohiko bilkurako akta gehiengoz onartu dute, Josune Urkolaren abstentzioarekin eta gainontzekoen aldeko botoarekin.

#### **\*2015/01/27KO OHIKO BILKURAKO AKTA.**

Batzarkideek, 2015eko urtarrilaren 27ko ohiko bilkurako akta gehiengoz onartu dute, Jose M<sup>a</sup> Rivadeneyraren abstentzioarekin eta gainontzekoen aldeko botoarekin.

#### **\*2015/02/24KO OHIKO BILKURAKO AKTA.**

Batzarkideek, 2015eko otsailaren 24ko ohiko bilkurako akta gehiengoz onartu dute, Ricardo Cresporen abstentzioarekin eta gainontzekoen aldeko botoarekin.

### **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2015EKO OTSAILAREN 16TIK MARTXOAREN 20RA (2015/0131 – 2015/0233)**

Alkatetzak 2015eko otsailaren 16tik martxoaren 20ra bitartean (2015/0131–2015/0233) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### **3.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-30 (ZUMARTEGI) EREMUAREN ANTOLAMENDU XEHATUAREN ALDAKETA HASIERAZ ONARTZEA, BERTAKO ERABILERA EGUN FINKATUTA DAUDENETARA EGOKITZEKO.**

Alkateak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu. Aldaketa honek Zumartegi esparru urbanistikoaren ezaugarrien fitxaren edukiari eragiten diola soilik adierazi du eta helburua dela egungo eraikuntza erabilera eta baldintzetara egokitzea eta, baita, udalak emandako udal baimenen aurrekariarekin koherentziaz jokatzeko ere. Horretarako beharrezkoa ikusten dela esan du irizpideak, helburuak eta erabilera atalei dagokion testuaren zati bat aldatzea.

Aldaketaren komenitasun eta egokieraren eta justifikazioari dagokionez, Zumartegi eremuan ezagutzen dugun eraikuntza eta erabileren errealitate finkatu bat osatu dela azken urte hauetan zehazten du. 1971tik Igepak enpresa dagoela bertan finkatuta gaineratu du. Urte horretatik aurrera egin diren arauen aldaketek ez dutela kontutan hartu esan du enpresa hori hor zegoela, beraz, egoera absurdoa zela esan du. Urte guzti hauetan hainbat baimen eskatu dituela enpresa horrek eta eman egin zaizkiola esan du.

Jarraitu du esanez Igepak enpresak proiektu bat aurkeztu zuela bere jarduera anpliatu ahal izateko eta udal arkitektoak aurkako txostena eman ziola, baina esanez egokitzearen obra hauek ezin zirela baimendu, baimendu ezin daitekeen jarduera bat



Usurbilgo Udala



egokitzea helburu zuelako. Enpresak berraztertze errekurtsua aurkeztu zuela eta hori ikusita arkitektoak beste txostenean esaten zuena zen berraztertze errekurtsua ez aintzat hartzea arauak baimentzen ez zuelako, baina bai ohartarazten zuen hirigintza fitxaren aldaketaren beharra zegoela.

Hau guztia horrela, otsailaren 10ean hirigintza fitxaren aldaketari dagokion dokumentazioa aurkeztu zuen enpresak, horren izapidetzea hasteko eskatuz.

Udal arkitektoak txostena egin zuen Zumartegi eremuaren aldaketa puntualaz eta gaur egungo erabilera finkatze aldera eta, bide batez, beste gauza bat zegoenez arauetan gaizki zegoena, esaten zelako urbanizazioa osatu gabe zegoela, hau ere konpondu egin dela jakinarazi du. Aldaketa ontzat eman daitekeela esaten duela dio eta horretarako jendaurrean jartzea proposatzen du.

Bestalde, Igepak Seveso normatibaren menpean dagoenez, badaezpada ere, gaitua den pertsona baten txosten teknikoa eskatu zutela adierazi du. Jakiteko zehazki eskatzen zen anpliazio horrek zer eragin izango zuen segurtasun neurrietan, etab. Txosten horretan ondorioztatu dela dio ez dagoela funtsezko aldaketarik.

Udal idazkariak ere txostena egin duela esan du espedientearen izapidetzeari buruz.

Amaitzeko, nabarmendu du gehiengo osoa behar duen gai bat dela.

Batzarkideek, Hirigintza Batzorde Informatzailearen erizpena aztertu dute eta gehiengo osoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2015-0065

### AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartu zuen. Testu Bategina 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 182. zenbakian.

Orain berriz, A-30 (Zumartegi) eremuko hirigintza ezaugarrien fitxa industrialdean egun finkatuta dauden erabileratara egokitzeke, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-30 (Zumartegi) Eremuaren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETARako beharrezko dokumentua aurkeztu du IGEPAK, S.A. enpresak. Dokumentua Jose Miguel Toledo Etxepare arkitektoak idatzi du.

### ANTOLAMENDU XEHATUAREN ALDAKETAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA

Aurkeztutako dokumentuaren memoriak honela zehazten du Aldaketaren edukia eta helburua:



Usurbilgo Udala



Dokumentu honen sarreran aipatu den bezala, hemen aurkezten den arau aldaketa puntual honek, Usurbilgo Planeamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren A-30 (C/SE) ZUMARTEGI esparru urbanistikoaren EZAUGARRIEN FITXAren (TESTUAK) edukiari eragiten dio soilik.

Adostutako aldaketa bat dator "Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko" ekainaren 3ko 105/200 Dekretuko 30. Artikuluarekin, Antolamendu xehaturen aldaketari buruzkoarekin. Bertan honakoa esaten da:

"Plangintza orokorrean txertatutako antolamendu xehatua Pian Nagusiaren aldaketaren irudia, edota Plan Bereziaren edo Plan Partzialaren irudia (dagokionaren arabera) erabilita aldatu ahal izango da. Izapideak egiteko prozedura 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. Artikuluetan araututakoa izango da."

"EZAUGARRIEN FITXA"-ren edukia A-30 ZUMARTEGI esparruaren egungo eraikuntza eta erabilera baldintzetara egokitzea da helburua, bada udal jarduerarekiko eta aipatutako esparruan emandako udal baimenenen aurrekariekin koherentziaz jokatzeko. Horretarako beharrezkoa irizten da "1.-IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK eta "3.- ERABILERA" atalei dagokien testuaren zati bat aldatzea, idazketa argiagoa eta zehatzagoa izateko helburuarekin, eta horrela, errealitate honetatik urrun dauden interpretazioei lekurik ez uztea.

Aldaketaren komenitasun eta egokieraren eta justifikazioari dagokionez berriz, honela zehazten da:

Proposatutako aldaketa puntualarekin ezaugarrien fitxa zuzendu nahi da, urte guzti hauetan zehar izan den udal borondatearen aurkako interpretaziora eraman ditzaketen aspektuetan. Udal borondate hori eman diren hainbat baimenetan gauzatu da, zeinak A-30 (C/SE) ZUMARTEGI eremuan ezagutzen dugun eraikuntza eta erabileren errealitate finkatu bat osatu duten.

Begibistakoa da zehaztapen hori aldatu egin behar dela, kontuan hartuta IGEPAK, S.A.-ren enpresa jardueraren aurrekariak Usurbilgo A-30 (C/SE) ZUMARTEGI esparruan; zeina Udalaren onarpenarekin garatu izan da Usurbilen 1971. Urtetik hona. Horretarako, baimen ugari eskatu eta eman zaizkio (1996, 1997, 2001, 2008, 2009); baita 2005. Urtetik gaur egun arte indarrean dagoen araudiarekin ere (2005-02-28ko G.A.O. 39,zkia.)

Ekimen honen komenitasun eta egokiera, beraz, erabat justifikatua geratzen da aurretik aipatutakoarekin.

Horrekin guztiarekin segurtasun juridikoaren printzipioa finkatu nahi da; beharrezkoa dena bai esparruko industria jardueren garapenarentzat, baita udal jarduerarentzat ere, zeinak aurrekari administratiboekin eta orain arte agertutako borondatearekin koherentea izan behar duen.

## UDAL ARKITEKTOAREN TXOSTENA



Usurbilgo Udala



Antolamendu Xehakatuaren aldaketarako dokumentua aztertu ostean, udal arkitektoak, Joxean Erasmun Arancón jaunak, ondoko txostena eman du:

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate andreari**  
**PLANEAMENDUA**

**IGEPAK ENPRESAK ESKATUTAKO ALDAKETA PUNTUALARI**  
**TXOSTENA**

---

KOKAPENA: Aitezarra, 4. Zumartegi Industrialdea. Usurbil  
ESKAERA DATA: 2015eko otsailaren 23a  
ESKATZAILEA: Mauro Tenés Iturri, IGEPAK S.A.-ren izenean  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.01/2015-65

---

**AURREKARIAK**

- 2014ko apirilaren 16an ASMATU S.L.P. ingeniariak, IGEPAK S.A. enpresaren izenean, obra baimen eskaera egin zuen eta horrekin batera honako proiektua aurkeztu: "Proyecto de acondicionamiento de nueva nave de Igepak, en el polígono industrial de Zumartegi, Usurbil".
- 2014ko uztailaren 16an udal arkitektoak aurkako txostena idatzi zuen. Besteak beste, honakoak jaso zituen teknikariak:

*"Beraz, orain eskatzen diren obrek aipatu jardueraren handitzea ezartzeko egokitzapena dira. Erabileraren inguruan, aurrekarietan azaldu bezala 2014ko uztailaren udal arkitektoak Jarduera baimena eskaerari AURKAKO hirigintza txostena idatzi zion, ezarri nahi den erabilera Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolamendurako Arau Subisidarioen Testu Bateginak finkatutakoaren kontra doalako. Ondorioz, **egokitzapen obra hauek ez dira baimengarriak, baimendu ezin daitekeen jarduera bat egokitzea helburu izanik (ikus .... txostena).**"*

- 2014ko abenduaren 10ean Mauro Tenés Iturri jaunak, Igepak enpresaren izenean, berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen.
- 2015eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu zuen:

*LEHENDABIZI: Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko urriaren 17an aerosolak ekoizteko jarduera haunditu ahal izateko Zumartegi industrialdeko Aitezarra kalea 4ko pabiloia egokitzeko udal baimena ukatuz hartutako erabakiaren aurrean, IGEPAK, S.A. enpresak tartekatutako berraztertze errekurtsoa aintzat EZ hartzea.*

*BIGARRENA: Udal arkitektoak emandako txostenean adierazitako kontutan izanik, egungo jarduera finkatze aldera, hirigintza fitxaren aldaketa izapidetzeko dagokion dokumentazioa prestatu eta aurkezteko proposatzea IGEPAK, S.A. enpresari.*

(...)

- 2015eko otsailaren 10ean Mauro Tenés Iturri jaunak, Igepak enpresaren izenean, hirigintza fitxaren aldaketari dagokion



Usurbilgo Udala



dokumentazioa aurkeztu zuen, eta horren izapidetzea eta onartzea eskatu.

- 2015eko otsailaren 23an interesdunak, behean izenpetzen duen teknikariarekin eta udal aholkulari juridikoarekin bilera egin ondoren, dokumentazio berria aurkeztu du, eta horren izapidetzea eta onartzea eskatu.

#### Erlazionatuak:

**Tomo 361630- 1971. urtea. Solicitud de licencia municipal para el establecimiento de una industria destinada a la fabricación y envasado de AEROSOLES en el Polígono Industrial 24.**

**Zenb. 330/sig. 0199-01: Aitezarra kalea 2an Aerosolen ekoizketarako jarduera baimena.**

- 1996ko otsailaren 27an Tokiko Gobernu Batzarrak IGEPAK S.A. enpresari Aitezarra kaleko 2an aerosolen ekoizpenerako iharduera instalatzeko baimena eman zion.
- 1997ko ekainaren 17an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean iharduera ezartzeko eraikitze pabiloien lehen erabilera baimena eman zen.
- 2001ko ekainaren 12an Tokiko Gobernu batzordeak IGEPAK S.A. enpresak Zumartegi Industrialdean Aitezarra kaleko 2an aerosolen ekoizpenerako jarritako iharduera irekitzeko udal baimena eman zuen.

**HZ.07/2007-0067 – Aerosolak ekoizteko jarduera Aitezarra kalea, 4ko pabiloia zabaltzeko jarduera proiektua**

- Eskaera data: 2007ko otsailaren 16.
- 2008-02-11: Baimena bertan behera uzteko eskaera eta Jarduera proiektu berria baimen berri bat eskatuz.
- 2008-07-29: Tokiko Gobernu Batzarrak jarduera ezartzeko baimena.
- 2009-02-24: Tokiko Gobernu Batzarrean erabakia irekiera baimena emanez.

**HZ.07/2014-150 – Zumartegi Industrialdeko Aitezarra 4 pabiloian jarduera handitzeko obra proiektua:**

- 2014ko apirilaren 16an ASMATU S.L.P. ingenieritzak IGEPAK enpresak Zumartegi Industrialdean duen jarduera handitzeko baimen eskaera egin zuen, honako proiektua aurkeztuz: "USURBILGO ZUMARTEGI INDUSTRIALDEKO IGEPAK-EN NABE BERRIAREN JARDUERA".
- 2014ko uztailaren 8an udal arkitektoak jarduera baimen eskaerari **AURKAKO HIRIGINTZA TXOSTENA IDATZI ZION, honakoa ondorioztatuz:**

"Ondorioz, ikusirik 2013ko irailaren 10ean BOG-en argitaratu zen Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolamendurako Arau Subsidiarioen Testu Bateginak ez duela A-30 ZUMARTEGI eremuan industria kimikorik baimentzen eta IGEPAK S.A. enpresak 2014ko apirilaren 16an aurkeztu duen jarduera eskaerak



Usurbilgo Udala



industria kimiko jarduera barneratzen duela, **eskaerari AURKAKO hirigintza txostena idazten zaio.**"

## TXOSTENA

Aurrekarietan esan bezala, egungo jarduera finkatze aldera, enpresak hirigintza fitxaren aldaketari dagokion dokumentazioa aurkeztu du: memoria eta eranskinak (indarrean den hirigintza fitxa eta proposatutakoa).

Aurkeztutako dokumentuaren arabera, Usurbilgo Planeamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren edukiri proposatzen zaion aldaketa puntuala A-30 (C/SE) ZUMARTEGI eremuaren Ezaugarrien Fitxako testua zuzentzera mugatzen da, honako ataletan:

### 1- IRIZPIDE ETA HELBURUAK

Eremu hau finkatutako jarduketa unitate ezberdinez osatzen da. HEU 30.3ak birurbanizazioaren beharra du. Egungo industriak finkatzen dira, horien handitzea baimenduz.

### 3- ERABILERAK

Egungo erabilera finkatzen dira, nagusia industrialak izanik, Atxega jauregiarena izan ezik. Eta ez da inolako jarduketarik onartuko leku itxietatik kanpo. Atxega jauregiaren erabilera merkatal-ostalaritzazkoa izango da.

Erabilera berriei dagokienez, araudi orokorraren 4.2 Atala izango da aplikagarria.

Bide batez, Igepak enpresarekin loturarik ez duen arren, eremuaren urbanizazioa bukatuta dagoela kontuan izanik, urbanizazioa osatu gabe duen jarduketa unitateari buruzko erreferentzia ("Irizpide eta helburuak" atalekoa) ezabatzea proposatzen da.

## ONDORIOA

Aldaketa puntualaren helburua aintzat hartuta, orain aurkeztutako dokumentazioa ontzat eman daiteke, eta, antolamendu xehatua aldatu nahi dela kontuan izanik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuaren arabera izapidetu:

*30. artikulua.- Antolamendu xehatuaren aldaketa. Plangintza orokorrean txertatutako antolamendu xehatua Plan Nagusiaren aldaketaren irudia, edota Plan Bereziaren edo Plan Partzialaren irudia (dagokionaren arabera) erabilia aldatu ahal izango da. Izapideak egiteko prozedura 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututakoa izango da.*

Hala, 2/2006 Legeari jarraiki, aldaketa puntualari hasierako onespina ematea proposatzen dut, eta jendaurrean jartzea, udalerriri dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurralde horretan tirada gehien duen egunkarian edo egunkarietan hasierako onspena emateko erabakia argitaratuz.



Usurbilgo Udala



Horixe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2015eko otsailaren 24an.  
UDAL ARKITEKTOA  
Izta.: Joxean Erasun

## LEGE TXOSTENA

Udal idazkariak, Antolamendu Xehakatuaren aldaketarako dokumentua aztertu ondoren, ondoko txostena eman du:

### LEGE-TXOSTENA

**GAIA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-30 (Zumartegi) Eremuaren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA hasieraz onartzea, bertako erabilerak egun finkatutako daudenetara egokitzeko**

**Esp. Zerbakia: HZ.01/2015-0065**

### AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartu zuen. Testu Bategina 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 182. zenbakian.

Orain berriz, A-30 (Zumartegi) eremuko hirigintza ezaugarrien fitxa industrialdean egun finkatuta dauden erabileretara egokitzeko, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-30 (Zumartegi) Eremuaren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETArako beharrezko dokumentua aurkeztu du IGEPAK, S.A. enpresak. Dokumentua Jose Miguel Toledo Etxepare arkitektoak idatzi du.

### ALDAKETAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA

IGEPAK, S.A. enpresak sustaturik, Jose Miguel Toledo Etxepare arkitektoak prestatutako dokumentuan biltzen da Aldaketaren xedea eta justifikazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancón jaunak, 2015eko otsailaren 23an ALDEKO txostena eman du. Bertan, aldaketari hasierazko onespena ematea eta jendaurrean jartzea proposatzen du.

### IZAPIDETZA





Usurbilgo Udala



Ekainaren 30eko 2/2006 Hirigintza eta Lurzoruaren Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuko 30. artikulua zera dio Antolamendu xehatuaren aldaketari buruz:

*“Plangintza orokorrean txertatutako antolamendu xehatua Plan Nagusiaren aldaketaren irudia, edota Plan Bereziaren edo Plan Partzialaren irudia (dagokionaren arabera) erabilita aldatu ahal izango da. Irizpideak egiteko prozedura 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututakoa izango da.”*

2/2006 Legearen **95.** artikulua arabera, Antolamendu xehatuaren aldaketak honako izapidetzea du:

**95.2. art.** *“Udalak hasierako onespena (...) emango dio plan partzialari. (...) Jendaurrean jarriko du, udalerrinari dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurralde horretan tirada gehien duen egunkarian/etan hasierako onespena emateko erabakia argitaratuz. Plana 20 egunez egongo da, gutxienez, jendaurrean, azken argitalpenaren egunetik aurrera”.*

**95.3. art.** *“Jendaurrean egondako epean aurkeztutako alegazioak ikusita, udalak behin-behingo edo behin betiko onartuko du plana, bidezko diren aldaketak egin ondoren. Aldaketak funtsezkoak badira, plan partzialaren testu bategin berri bat egingo da. Testu horri hasierako onspena emango zaio eta berriz ere jendaurrean jarriko da”.*

**95.4. art.** *“Udalak plana behin-behingo edo behin betiko –dagokionez- onartzeko, sei hilabete izango ditu gehienez ere, hasierako onspena eman zaionetik kontatuta (...)”.*

**95.5. art.** *“(...) 3.000 biztanletik gorako udalerrietan, udalaren bigarren onspena behin betiko onspena izango da”.*

2/2006 Legearen **89. art.**k argitalpena eta indarraldia xedatzen ditu:

**89.1. art.** *“Hirigintzako planen onarpenari dagokionez, plangintza onartu duen herri-administrazioak jendaurrean jarriko du haren eduki osoa (...)”*

**89.3. art.** *“Artikulu honetako 5. zenbakian aipatzen den argitalpena egin aurretik, hirigintzako planak eta haien aldaketak eta berriskuspenak igorriko dituzte udalek, dagokion foru-aldunduko erregistroan sartzeko (...)”.*

**89.5. art.** *“Lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko dira, eman dituen organoaren xedapen baten bitartez, behin betiko onspena emateko erabakiak [...]. Behin betiko onspena emateko erabakiak, gainera, dagokion lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian/etan ere argitaratuko dira. Bi kasuetan, oso*



Usurbilgo Udala



*osorik argitaratuko dira, bai eta dagokion hirigintza-plana aipatutako erregistroan jaso dela adierazi ere”.*

Bestade, adierazi behar da, apirilaren 2ko 7/1985 legeak 22.2.c)art.ak xedatutakoaren arabera, **udalbatza plenoari dagokio** plangintza orokorrari buruzko akordioak *hartzea “La aprobación inicial del planeamiento general y la aprobación que ponga fin a la tramitación municipal de los planes y demás instrumentos de ordenación previstos en la legislación urbanística”.*

Beraz, hasierako onespena eta behin betikoa udalari dagokio. Bi kasuetan, **gehiengo absolutuz onartu beharko da aldaketa**, honela baitio apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.art.ak: “ *Se requiere el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de las corporaciones para la adopción de acuerdos en las siguientes materias: II) Los acuerdos que corresponda adoptar a la corporación en la tramitación de los instrumentos de planeamiento general previstos en la legislación urbanística.* “

Laburbilduz, **izapidetzeari dagokionez**, honako hauek dira **eman beharreko pausu nagusiak**:

- Hasierako onespena udalbatza plenoari dagokio, gehiengo absolutuz
- Aldaketa 20 egunez jarriko da jendaurrean, GAOean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

Aldaketak funtsezkoak balira, berriro ere hasierako onespena emango litzaioke testuari eta jendaurrean jarriko litzateke.

- **Plenoak**, alegazioak ikusita, behin betiko onartuko du dokumentua. Sei hilabeteko epea ezartzen da horretarako, behin hasierako onespena eman ondoren.
- Antolamendu Xehatuaren aldaketa Foru Aldundira igorriko da, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin. Behin betiko onespena GAOean eta ohizko egunkarietan argitaratuko da eta bertan adieraziko da hirigintza-plana aipatutako erregistroan jaso dela. Antolamendu Xehatuaren aldaketa GAOean argitaratu eta handik 15 lanegunetara sartuko da indarrean.

Hauxe da sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritziren kalterik gabe.

Usurbilen, 2015eko otsailaren 24ean  
Udal idazkariak  
Nagore Sarasola Otermin

Gauzak horrela, Hirigintza Batzordeak, 2015eko martxoaren 12an egindako bilkuran, gehiengoaz, Mertxe Aizpurua, Jone Urdampilleta eta Eustakio Arrojeriaren aldeko botoekin, eta Luis Mari Ormaetxea eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, Plenoari proposatutako erizpena kontutan hartutan, honek gehiengo osoz honako erabakia hartu du:



Usurbilgo Udala



## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Eremuko hirigintza ezaugarrien fitxa Zumartegi industrialdean egun finkatuta dauden erabileratara egokitzeko, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-30 (Zumartegi) Eremuaren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA hasieraz onartzea.

**BIGARRENA:** Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatzen duenaren arabera, espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohiko egunkarietan argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.”

Bozketak honako emaitza eman du:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi eta Ricardo Crespo Rubio.

Abstentzioa: Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Josune Urkola Larrarte.

Beraz, erabakia gehiengo osoz hartu da.

### **4.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENAREN TESTU BATEGINEKO ARAUDIKO 37., 53. ETA 54. ARTIKULUEN ALDAKETA PUNTUALAREN (01 ALDAKETA) BEHIN BEHINGO ONESPENA.**

Alkateak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu.

Aldaketa bakoitza zertan datzan azaldu du.

37. artikulua aldaketak hiri lurzoru edota lurzoru urbanizagarrian etxebizitzetan estalkipeko edo teilatupeko solairuetan etxebizitza erabilera ahalbidetzea duela helburu adierazi du. Halaber, behe solairuetan aterpeak egiteko debekua zehaztu egin dela eta ondorioz bakarrik aplikagarria izango litzatekeela dio erabilera publikodun eremu/kaleetan, hau da, kaleak barneratzen dituen aterpeak galarazita egongo lirateke.

53. artikulua aldaketa gauza bera dela dio, hau da, teilatupean etxebizitzak egin ahal izatea baina kasu honetan lurzoru ez urbanizagarrietan.

54. artikulua aldaketa, azkenik, negutegiei dagokiena da, lurzoru ez urbanizagarrian negutegiak eraikitzeke aldaketa dela dio. Gaur egun indarrean dauden arauetan negutegiak araututa daudela dio baina ingurumen teknikariak aldaketa bat egitea eskatu zuen, ezartzen ziren baldintzak bete ezinak baitziren.



Usurbilgo Udala



Gaineratu du alegazio epean ez dela inolako alegaziorik aurkeztu. Bestalde, Landa Garapeneko departamentuko txostena iritsi dela, non hainbat gomendio egiten diren eta Ingurumen teknikariak Foru Aldundiak egindako gomendio edo iritzi batzuk bereganatu dituela baina beste batzuetan bere txostena herri honen beharretarako egokiagoa zela ulertu duela.

Idazkariaren lege txostena ere jasotzen dela gaineratu du eta bertan ondorioztatzen dela proposatzen diren aldaketak ez direla esanguratsuak eta ondorioz ez dela beharrezkoa berriro erakusketa publikoan jartzea.

Batzarkideek, Hirigintza Batzorde Informatzailearen erizpena aztertu dute eta gehiengo osoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“Espediente zenbakia: HZ.01/2014-0279

## **AURREKARIAK**

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartzea erabaki zuen. Hauen testua 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 172. zkiko. Aldizkarian.

Usurbilgo udaleko gobernu taldeak Araudiaren 37., 53., eta 54. artikulua aldatu nahi ditu. Gauzak horrela, Ekhiñe Egiguren udal arkitektoak eta Nekane Azarola Martinez hirigintzako udal aholkulari juridikoak aipatu aldaketak barneratzen zituen Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuspenaren Testu Bateginaren Araudiaren Aldaketa Puntualaren (01 Aldaketa) dokumentua erredaktatu zuten.

## **ALDAKETAREN XEDEA**

Aurrekarietan azaldutakoa bateratuz eta jarraituz, Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspen Testu Bateginaren aldaketa honen helburua da araudiaren 37., 53. eta 54. artikulua aldatzea.

37. artikulua aldaketa Udalaren eskaerari erantzunaz idatzi da, izan ere, hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarrian egoitzazko eraikuntzetan estalkipeko solairuetan etxebizitza erabilera ahalbidetzea baitu helburua, horretarako beharrezkoak diren baldintzak zehaztuz. Egun indarrean diren arauak aukera hori espreski eraikinak kokatzen diren eremuko Plan Berezietan (aintzinako herri-guneen kasuan) edota dagokion hirigintza fitxan (gainontzeko kasuetan) finkatzen denean soilik ahalbidetzen dute.

Horrekin batera, Udalaren eskaerari erantzunaz baita ere, behe solairuan aterpeak egikaritzeko debekua zehaztu da, bizitegi eraikuntzen behe solairuei atxikita



Usurbilgo Udala



erabilera publikodun eremu/kaleak barneratzen dituen aterpeak galaraziz. Egun indarrean diren arauak behe solairuetan aterpeak orokorki galarazten dituzte.

53. artikulua aldaketa Udalaren eskaerari erantzunaz idatzi da, 37. artikulua aldaketarekin batean, lurzoru ez urbanizagarrian egoitzazko eraikuntzetan estalkipeko solairuetan etxebizitza erabilera ahalbidetzea du helburu, horretarako baldintzak zehaztuz. Egun indarrean diren arauak estalkipean aprobetxamendu osagarriak baimentzen dituzte (B.2 puntuan) .

Azkenik, 54. artikulua idatzi da Ingurumen Teknikariaren eskaeraren eta proposamenaren arabera, lurzoru ez urbanizagarrian negutegiak eraikitzeko xedapen partikularrak eskatu bezala egokituz. Egun indarrean diren arauetan negutegiak arautzen badira ere, Ingurumen Teknikariaren txostenean esaten denez; *“Gaur egun negutegientzako ezartzen diren baldintzak ia bete ezinak dira, izan ere, aisialdira mugatzen diren negutegiak izan behar dute (horren okupazio maila txikiarekin) eta aldi berean 2 Ha-ko lursailak izan behar dituzte.”*

## **ALDAKETAREN JUSTIFIKAZIOA**

Aipatu dugun bezala, aldaketa honek Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren 37, 53 eta 54. artikuluei eragiten die.

37 eta 53. artikuluentzat planteatzen den aldaketa, bizitegi erabilerako eraikuntzen estalkipean bizitegi erabilera baimentzea da, kontuan hartu gabe eraikina kokatzen den eremuaren sailkapena. Zentzu honetan, 37. artikulua orokorrean aplikatu beharreko eraikuntzen baldintzak xedatzen ditu, eta 53 artikuluko B.2 atalak, lurzoru urbanizaezinean kokatzen diren bizitegiko eraikuntzena.

Horretaz gain, Arau Subsidiarioen 54. artikulua, negutegiak xedatzen ditu. Udal ingurugiro teknikariak, araudi hori aplikatzeak, Usurbilgo udalerrian negutegiak jartzea ia galarazten duela ikusi duelarik.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 53.2.c artikuluari jarraiki, aurreikusten diren hirigintza-eraikigarritasuna, **erabilera berezia eta erabilera bateragarriak finkatzea**, hirigintzaren egiturazko antolamendu izaera edukiko dute.

Gainera, lurzoru urbanizaezinetako bizitegi erabilerako eraikinen eta negutegien erabilerak, zuzenean Arau Subsidiarioen arau orokorretan xedatzen dira, zehazki, Lurzoru Urbanizaezineko Araudia xedatzen duen 4.3. kapituluan.

Ondorioz, Euskal Lurzoruaren Legearen 59. artikuluan xedatutakoaren arabera, hirigintzako egiturazko antolamendua, Hirigintza Antolatzeko plan orokorren bidez egingo da.

Kasu zehatz honetan, Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren aldaketaren bidez.



Usurbilgo Udala



Honek guztiak Usurbilgo Plangintzako Arau Subsidiarioen 37, 53 y 54 artikuluaen aldaketa espediente honen egokitasuna justifikatzen du.

### **HASIERAKO ONESPENA ETA JENDAURREAN JARTZEA**

Hala, 2014ko uztailaren 29an, Plenoak, udal teknikarien aldeko txostenak kontutan izanik, gehiengo osoz, zera erabaki zuen hitzez hitz:

**LEHENENGO:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuspenaren Testu Bateginaren Araudiaren Aldaketa Puntuala (01 Aldaketa) hasieraz onartzea.

**BIGARRENA:** Onartutako dokumentazioa jendaurrean jartzea hilabeteko epealdian, iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan iragarkia argitaratuz, interesatuek hala baderitzote dagokien alegazioak aurkeztu ditzaten.

**HIRUGARRENA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen 01 aldaketa honek egistasmoren batean eragingo balu eraikitzeke eta lur zatiketarako baimen emakidak etetea, beti ere hartutako erabaki berriak indarrean dagoen Erregimen Urbanistikoa aldatzen badu.

Hartutako erabakiaren arabera, espediente jendaurrean jarri zen hilabetez, ondoko iragarkiak argitaratuz:

- Berria: 2014-08-01
- Gara: 2014-08-01
- El Diario Vasco: 2014-08-02
- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (151. zenbakia): 2014-08-12

Espediente jendaurreko epealdian egon den bitartean, **ez da inolako alegaziorik aurkeztu.**

### **LANDA GARAPENEN DEPARTAMENTUAREN TXOSTENA.**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendari Nagusiak, Koldo Lizarralde Iraolak, 2015eko otsailaren 25ean eman du beraien txostena. Hitzez hitz honela dio:

**Gaia: Gipuzkoako Foru Aldundiaren txostena, Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspenaren aldaketa puntualari buruzkoa.**

Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspenaren Testu Bateginaren 54. artikuluaen aldaketa puntualari dagokionez, Berrikuntzako,



Usurbilgo Udala



Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuari iritzia eskatzen duzue. Horri buruz, Landare Alorreko Unitateak adierazten du:

Lurraldeko beste udaletan, antzeko kasuetan, irizpide hau onartu da berotegien baldintza espezifikoetara dagokienez:

- Berotegiak behin-behineko edo behin betiko instalazioak dira, irisgarriak, nekazaritza laborantza behartzeko edo babesteko ziklo begetatibo osoan edo zati batean material gardenekin artifizialki estaliak eta babestuak. Hazitegi, itzalpe eta haztegiekin osa daitezke.

Bi tipologia hauek bereiz daitezke:

- Tunel-berotegia:

Pabiloi isolatuek, lotuek edo, bateria osatuz, ondoz ondokoek osatzen dute. Lursailean oinazpikoen bidez (zimendu minimoa) lotutako arku metalikoen gainean eutsitako plastiko malguzko lamina-itxitura dute, 1/1 eta 3/1 arteko bolumen/azalera erlazioarekin.

- Kapera-berotegia :

Bi isurkiko estalkia edo estalki kurbatua duen horma bertikaleko pabiloi gainjarri batek edo batzuek osatzen dute, 3/1etik gorako bolumen/azalera erlazioarekin. Itxitura kristalezkoa, polikarbonatozkoa, PVCzkoa, metakrilatozkoa, etab. izan daiteke. Egitura oin zuzenek, habeek, gapirioek, uhalek, etab. osatzen dute, bai metalikoek, bai horretarako beste material egoki batzuetakoek. Aireztapen-, berogailu- eta fertirrigazio instalazioak izan ditzakete.

Gainera, mutur batean modulu tekniko bat izan dezakete, berotegiaren ezaugarri eta egitura berekoa, baina hormekin eta sandwich panelekin instalita, gaur egun erabilitako fertirrigazio- eta klimatizazio-teknologia berrien kontrol-sistemak jartzeko.

Sortutako edota sortzea aurreikusten diren landare-hondar guztiak tratatzeko edukiera duen konpostaje-instalazio bat izango dute.

- Nekazaritzako produktuen laborantza honela egin daiteke berotegietan: zuzenean lurrean; substratu organiko, mineral edo sintetikoaren gainean loreontzi, edukiontzi edo mahaietan jarrita; uretako (hidroponikoa) edo aireko (aeroponikoa) laborantza-sistemen bidez; etab.

Nolanahi ere, indarrean den Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak balio ekologiko handikotzat jotzen dituen lurzoruetan eragiten dutenean, laborantza zuzenean lurzoruan egingo da, bere nekazaritza-balio errealearen edo balizkoaren mantentze-lanak eta babesa bermatzeko.

- Forma eta bolumena arautzeko baldintzak:

- Oinplano-okupazio maximoa eraikineko edo instalazioko: 3.600 m<sup>2</sup>.
- Eraikin edo instalazio bakoitzaren luzera maximoa: 60,00 m.
- Garaiera maximoa:
  - Tunel-berotegiena: 3,50 m.



Usurbilgo Udala



- Kapera-berotegiena:
  - Teilatu-hegalera: 5,00 m.
  - Gailurrera: 7,00 m.
- Lurzati hartzailearen okupazio maximoko baldintzak:

Horrelakoa da berotegi bat ezartzea edo lehendik dagoen bat ordeztzea, handitzea, etab. proiektatzen den lursaila eta nolatan ere multzo fisiko eta espazial jarraitu bat osatu beharko du. Lurzati horren okupazio maximoko baldintzak hauek izango dira:

- 6.000 m<sup>2</sup>-ko edo gutxiagoko azalerako lurzatia: % 60.
- 6.000 m<sup>2</sup>-tik gorako eta 10.000 m<sup>2</sup>-ko edo gutxiagoko azalerako lurzatia:
  - Irizpide orokorra: % 50.
  - Irizpide osagarria: kasu guztietan 3.600 m<sup>2</sup>-ko okupazio
- 10.000 m<sup>2</sup>-tik gorako azalerako lurzatia:
  - Irizpide orokorra: % 35.
  - Irizpide osagarria: kasu guztietan 5.000 m<sup>2</sup>-ko okupazio minimoa baimentzen da.
- Tarte minimoak:
  1. Tunel-berotegiarena:
    - ✓ Lurzoru urbanizaezinaren mugara: 20,00 m
    - ✓ Ustiapenkoak ez diren beste finka batzuetako erabilera ez-landatarretara zuzendutako eraikin eta instalazioetara: 20,00 m
    - ✓ Lurzatiaren mugara: 5,00 m
    - ✓ Landa-bideen ertzera: 5,00 m
    - ✓ Ustiapen berera lotutako beste berotegi batzuetara: 5,00 m
    - ✓ Ustiapen berera lotutako beste eraikin eta instalazio batzuetara: 10,00 m
  2. Kapera-berotegiarena:
    - ✓ Lurzoru urbanizaezinaren mugara: 30,00 m
    - ✓ Ustiapenkoak ez diren beste finka batzuetako erabilera ez-landatarretara zuzendutako eraikin eta instalazioetara: 30,00 m
    - ✓ Lurzatiaren mugara: 5,00 m
    - ✓ Landa-bideen ertzera: 5,00 m
    - ✓ Ustiapen berera lotutako beste berotegi batzuetara: 5,00 m
    - ✓ Ustiapen berera lotutako beste eraikin eta instalazio batzuetara: 15,00 m.

#### ONDORIOAK:

Lurzoruko laborantza bideragarria da kapera-berotegiak erabiliz. Lurzorurik gabeko laborantza ere egin daiteke, tunel-berotegiak erabiliz.

Beraz, eta 54. artikuluan zehazten diren puntuei dagokienez, uste dugu:

- a) Ez dela beharrezkoa lursailen neurriei mugak jartzea (1 ha, gutxienekoa).
- b) Lursail hartzailearen forma, bolumena eta okupazio maximoari dagokienez, gure ustez, lehen zehaztutako mugak ezarri beharko lirateke.





Usurbilgo Udala



- c) Nekazaritza Departamentuak aldez aurreko txostena egiteari dagokionez, irizpidea izan daiteke txostena eskatzea kapera-berotegien kasuetan.
- d) Ez da egokitzat jotzen Nekazaritzako Babes Bereziko Lurretan 3ko gehieneko okupazioa ezartzea kapera-berotegietarako, lurzoruko laborantza egiten bada.

Ez bada lurzoruko laborantza egiten, ezin da horrelako egiturarik eraiki Babes Bereziko Lurretan. Babes Bereziko Lurretan kokatuta ez dauden ustategiek bakarrik egin dezakete laborantza lurrik gabe

## **NEKAZARITZA ETA INGURUMEN TEKNIKARIAREN TXOSTENA.**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendari Nagusiak helarazitako txostena aztertu ostean, Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, ondoko txostena eman du:

### **TXOSTEN TEKNIKOA**

**GAIA:** Usurbilgo plangintzako hiri antolaketako arauen berrikuspenaren testu bateginean, negutegiei dagokien irizpidea aldatzea.

**UDAL TEKNIKARIA:** IBON GOIKOETXEA RETEGI

**DATA:** 2015-03-06

### **AURREKARIAK**

2014ko maiatzak 25ean txostena izenpetzen duen teknikariak, negutegiei dagokien arauen berrikuspena proposatu zuen.

2014ko uztailak 29an udal plenoak arauen aldaketa puntuala hasieraz onartu zuen.

- d) Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Erregimen Lokalari dagokionez, indarreko ebazpenen Testu Bateratua onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legegilea, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen aurka ez doan heinean.
- e) 1.955eko ekainaren 17ko Toki Korporazioetako Zerbitzuen Erregelamenduaren 114tik 137rainoko atalak, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen aurka ez doan heinean.
- f) Azaroaren 3ko 33/2003 Legea Administrazio Publikoetako Patrimonioaren Legea
- g) Izaera osagarritz, Zuzenbide Administratiboko gainontzeko arauak eta, hauek ezean, *Zuzenbide Pribatukoak izango dira indarrekoak.*

**Bigarren :**Esleipedunarekin sinatu beharreko Hitzarmen Administratiboa onartzea,

Bozketak honako emaitza eman du:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Iurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luis mari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.



Usurbilgo Udala



## 7.- AGINAGAKO ERIBERAN BIDEA ERABILERA PUBLIKOAN JARTZEKO ESPEDIENTEA.

Jone Urdanpilletak azalpenak eman ditu esanez Eizazpi-Oriagain zatia dela erabilera publikoan jartzen dena.

Aginagako erriberako bidea hainbat tramotan zatituta dagoela adierazi du eta onura publiko edo interes publikoa duelako erabilera publikora bideratu dela.

Eizazpi-Oriagain tramoari dagokion proiektua jendaurrean jarri dela esan du eta, baita, aldizkari ofizialean argitaratu eta interesatuei jakinarazi ere.

Helburua dela dio desjabetze legearen artikulua jarraituz eragindako ondasunen titularrekin adostasuna eskuratzen saiatzea edo elkarren arteko baliospen akordioa lortzen saiatzea, eta lortzen den adostasunarekin desjabetze espedientea eten eta dagokion hitzarmena sinatzea.

Proiektua jendaurrean jarri denean erreklamazio bat jaso dela aipatu du eta akats hori zuzendu egin dela.

Batzarkideek, Zerbitzuak Batzorde Informatzailearen erizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Espediente zkia:HZ.11/2011-0176

### Aurrekariak

1.-Udalbatza Plenoak 2014ko abenduaren 22ko ezohiko bilkuran besteren artean honako erabakia hartu zuen:

**Lehenengo:** Aginagako erriberako bidearen EIZAZPI-ORIAGAIN tramua egin ahal izateko INFORLUR injinieritzak aurkeztutako proiektua hasiera batean onartzea desjabetze helburuetarako.

**Bigarren:**Obra honen onura publikoa edo interes orokorra aitortzea;proiektuak eragindako lurretan okupazioa beharrezkoa dela aitortzea eta obra hori egiteko derrigorrezko desjabetzea egiteko administrazio espedientea hastea.

**Hirugarren:**Desjabetze eraginetarako, eraginpeko ondasun eta eskubideak eta euren titularren zerrenda hasiera batean onartzea, proiektuko txosten justifikagarrian zehaztutako eta obra proiektuak kaltetutako ondasun eta eskubideen zerrendaren arabera.

**Laugarren:**Aginagako erriberako bidearen luzatze proiektua, desjabetzaren xede diren ondasun eta eskubideen zerrenda eta euren titularrak jendaurrean jartzea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea.



Usurbilgo Udala



**Bosgarren:** *Interesdunei jakinaraztea desjabetze espedientea, eta dokumentazio guztia ikusgai egongo dela udal bulegoetan, eta aldizkarian argitaratzen den egunetik 15 egun barruan, Usurbilgo Udaleko Hirigintzako bulegoetan proiektuari buruzko edo ondasun eta eskubideetan egon litezkeen akatsak zuzentzeko alegazioak aurkeztu ahal izango dituztela.*

*Aipatutako epe horren barruan alegaziorik aurkeztuko ez balitz, proiektua eta ondasunen zerrenda behin betiko onartutzat har daiteke.*

**Seigarren:** *Desjabetze espedientea premiazko deklaraztea, hau da, eraginpeko ondasun eta eskubideak presaz okupatzeko deklarazioa egitea.*

**Zazpigarren:** *Alkate andrea ahalmentzea desjabetze jardun honen tramitazioa jarraitzeko beharrezkoak diren ekintzak egiteko.*

**Zortzigarren:** *Desjabetze legeko 24. artikuluan xedatutakoari jarraituz eragindako ondasun eta eskubideen titularrekin adostasuna eskuratzen saiatzea edo Elkarren arteko Baliospen Akordioa lortzen saiatzea. Adostasuna lortzen denarekin desjabetzapen espeienteia etenda geratuko da eta dagokion hitzarmen sinatuko da*

2.-Aginagako erriberako bidearen luzatze proiektua, desjabetzaren xede diren ondasun eta eskubideen zerrenda eta euren titularrak jendeaurrean jarri ziren 2015eko urtarrilaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gara, Berria eta Diario Vasco euskal prentsan.

3.-Jendaurrean jartzeko izapideak iraun duen bitartean, erreklamazio bakarra jaso da, titulartasunari burukoa, izan ere proiektuan 40. partzela falta da. Partzela 05 (C-041 Pol-3)-an azalera sartu dute 40. partzela. Partzela honen jabetza Pello eta Maria Aranzazu Agirre Mujikarena da. 41. Partzelaren jabetza ondo dago (Lucas Illarramendi Zubeldia). Bi partzela horien planoak eta desjabetzarako fitxak zuzentzea eskatu zaie Proiektu egileei.

### **Kontutan harturik**

Desjabetze legeko 24. artikuluan xedatutakoari jarraituz eragindako ondasun eta eskubideen titularrekin adostasuna eskuratzen saiatu da Udala eta 2 titularrek ezik, gainontzekoek dagokien bide tramuen lagapenerako hitzarmena sinatu dute edo sinatzera etorriko direla agindu dute.

Beraz, Toki-Entitateen Ondasunen Erregelamenduko 12. eta 17. eta hurr. Artikuluetan xedatutakoaren arabera aipaturiko ondasun eta eskubideen titularrekin obrak eragindako ondasun eta eskubideak Udalak eskuratzeko adostasuna balego, ez da beharrezkoa izango nahitaezko desjabetzea izapidatzea.

Beraz, guzti hori ikusirik, Zerbitzu batzordeak, aho batez, Mertxe Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Eustakio Arrojeria eta Luisuari Ormaetxearen aldeko botoekin Udalbatzarrari aurkeztutako erizpena kontutan hartuta, plenoak honako erabakia hartu du aho batez:

**ERABAKIA**





Usurbilgo Udala



**Lehenengoa:** AGINAGAKO ERRIBERAKO BIDEAREN EIZAZPI-ORIAGAIN TRAMUAREN PROIEKTUA eta honek eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean egon zen bitartean haren aurka aurkeztutako erreklamazioa onartzea .

**Bigarrena:** Aipatutako proiektua zuzenduta eta proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda BEHIN BETIKO onartzea eta horiek okupatu eta eskuratu beharra deklaratzeko, desjabetu eta aldi batean okupatzeko, eta zortasunak ezarri, aldatu edo amaitzeko.

**Hirugarrena:** Eragindako ondasun eta eskubideen prezioa eta balorazio kriterioak onartzea INFORLURI S.L. injineritzak egindako balorazioaren arabera.

**Laugarrena:** Onartutako baliospen prezioa espedientearen ondasun edo eskubideen jabe azaltzen diren titularrei banaka jakinaraztea baliospen orria eta finkatu diren balorazio kriterioak literalki trasladatuz, horretarako banakako espedienteak irekiaz eta jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hogeitaz eguneko epea emanaz alegazioak aurkezteko edo/eta beren prezioa finkatu dezaten(banakako espedientearen), 1954ko abenduaren 16ko Derrigorrezko Desjabetzaren-Legearen 24. eta hurrengo artikuluen arabera aurreikusten diren izapideak betez:Elkarren Arteko Balioespen Akordioa, eta hala badagokio, Balio Orriaren eskabidea izapidatzeko helbururekin.

**Bostgarrena:** ZORTZIREHUN ETA HOGEITA HEMERETZI EURO ETA BERROGEITAHIRU ZENTIMO (839,43euro)ko kreditu atxikipena egitea Usurbilgo Udaleko 2015eko aurrekontuko 1.7000.601.153.20.01. partidan

**Seigarrena:** Edozein kasutan Nahitaezko Desjabetze Legeko 24. artikuluan xedatutakoari jarraituz eragindako ondasun eta eskubideen titularrekin adostasuna eskuratzen saiatzea edo Elkarren arteko Baliospen Akordioa lortzen saiatzea.”

Bozketak honako emaitza eman du:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, LuisMari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## 8.- GALDERAK, ESKAERAK ETA MOZIOAK.

Ez da galdera edo eskaerarik egin.



Usurbilgo Udala



### **8.1.- USURBILGO EAJ-PNVK AURKEZTUTAKO MOZIOA: “BETERRI” ESKUALDEKO GARAPEN AGENTZIARI BURUZKO MOZIOA.**

Josune Urkolak mozioa irakurri du.

Alkateak adierazi du beraien bozka aurkakoa izango dela eta Alaitz Aizpuruari eman dio hitza.

Alaitz Aizpuruak adierazi du mozioko zenbait punturekin ados daudela eta beste batzuekin ordea ez.

Batetik, lehenengo puntuarekin ados daude.

Garapen Agentziari buruz esaten denarekin puntuz puntu erantzun beharrean, orokorrean adierazi du entitate juridiko bat ez dela eratu, hasieratik esan zutela dio agentziak sei udalerriei eman behar zuela zerbitzua eta horri eusten diela gaineratu du. Hala ere, ezin dutela ahaztu dio sei udalerrri hauetan ibilbidea aspalditik datorrela, ez dela berria.

Uste dute entitate juridiko bat sortzea tresna bat dela sei udaletxeen arteko koordinazioa eta kudeaketa erraztuko dituen. Argi dute, hala ere, ibilbidea aspalditik datorrela eta egitasmoak gehitzen doazela eta horrela jarraituko dutela.

Jarraitu du esanez bere garaian garapen agentziaren sorrera diktaminatu zenean nahiz eta alderdi guztiak ez egon ados forma juridikoarekin, besteak beste, garapen agentziaren beharra errekonozitzen zutela eta baita ere sei udaletan egiten ari diren lan horren jarraipena egiteko koordinazioaren beharra ere.

Gogorarazi du sei udalek 2012an hitzarmen protokolo bat sinatu zutela eta horren jarraipena izan dela egin dutena.

Izenarena beraiantzat detaile bat dela adierazi du. Astigarraga eta Andoaingo udaletan mozio bat ere onartu zela esan du Beterri izena ematea erabakiz. Hala ere, izenarenak ez duela uste dio arazo izan behar duenik.

Berriz ere aipatu du izaera juridikoa ez dagoela sortuta, beraien ustez hori tresna bat izango litzateke guztia koordinatu eta egokiago kudeatzeko, baina bitartean egitasmoen eta teknikarien ibilbidea ezin dutela oztopatu azpimarratu du.

Batzarkideek, Usurbilgo EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa aztertu dute eta gehiengoaren aurkako botoarekin ez da onartua izan. Honela dio mozioaren testuak:

“2015eko martxoaren 12an EH Bilduko ordezkariak “Beterri” eskualdeko garapen agentzia sortzeko proposamena aurkeztu eta proposamenari dagokion [www.beterri.eus](http://www.beterri.eus) webgunea ere abiarazi dutela eta, honakoa adierazi nahi dugu:



Usurbilgo Udala



Eskualdeko EH Bilduko ordezkariak jakitera eman duten proposamenak legezko baliorik ez duela, aurkeztutako erakundea oraindik ez baita eratu, eta, beraz, legezko baliorik ez duen proposamen hutsa besterik ez dela.

Eskualdeko EH Bilduko ordezkariak jakitera emandako proposamenak eta edukiek ez dutela dagozkien udalerrien osoko bilkuren babesik.

Jakitera emandako proposamenaren baitan agentziaren gaia aztertu ere egin ez diren udalak ere barruan sarturik daudela.

Hori dela eta, Usurbilgo Udaleko Osoko Bilkurak honako puntu hauek onar ditzan eskatzen dugu:

Usurbilgo Udala usurbildar guztion erakundea dela, eta osoko bilkura udalaren ordezkari-organoren goren.

Berretsi dezala Eskualdeko Garapen Agentzia "Beterri", ez dela eratu eta beraz, jarduerarik ez daukala.

Eskualdeko Garapen Agentzia eratu eta sei herrialdeko udalbatzaren babesaren lortu arte eta ez Bilduk gehiengo osoa daukan hiru udalena bakarrik, ezingo dela "Beterri" izena erabili.

Eskualdeko Garapen Agentziaren baitan erabakiak hartzerakoan eskualdea osatzen duten kide guztien iritzia kontutan hartuko dela.

Beste alderdi politikoekin negoziazioak hautsi izana agentzia eratzeko premiazko beharra zegoela argudiatuz, aitzakia hutsa zela akordioetara ez iristearren. Lau hilabete beranduago Agentzia eratu gabe dago."

Bozketak honako emaitza eman du:

Aldeko botoak: Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio

Aurkako botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza eta Jose Ramon Furundarena Salsamendi.

Beraz, mozioa ez da onartua izan.

**8.2.- USURBILGO EHBILDU ETA EAJ-PNV UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ESPAINIA NAZIO BATUETAKO SEGURTASUN-KONTSEILUAN.**



Usurbilgo Udala



## **MENDEBALDEKO SAHARAKO AUZIARI BIDEZKO ETA BEHIN BETIKO KONPONBIDEA BILATZEKO AUKERA.**

Jone Urdanpilletak mozioa irakurri du.

Batzarkideek mozioa aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

### **“ESPAINIA NAZIO BATUETAKO SEGURTASUN-KONTSEILUAN. MENDEBALDEKO SAHARAKO AUZIARI BIDEZKO ETA BEHIN BETIKO KONPONBIDEA BILATZEKO AUKERA**

“Etorkizuneko belaunaldiak gerraren zigorretik babesteko” sortua izanik eta bere helburu nagusien artean “bakea eta nazioarteko segurtasuna mantentzea” duen Nazio Batuen Erakundeak 70 urte beteko dituen urtean.

40 urte pasa dira Espainiak Mendebaldeko Sahara abandonatu zuela eta, harrezkero deskolonizatzeke dagoen Lurralde Ez Autonomoa da, Marokoren okupaziopean gainera.

Deskolonizazio kontuetan NNBB-ei eta bere Estatu kideei dagokie erantzukizun nagusia eta, Nazio Batuen sortze-Gutunaren arabera, bidezko eta behin betiko konponbideen bilaketan erantzukizunik nagusia Segurtasun-Kontseiluak du

#### **Usurbilgo Udalbatzarrak honako mozioa onartu du:**

1.- Espainiako Gobernuari: De iure potentzia administratzailea den heinean, Mendebaldeko Sahararako Idazkari Nagusiaren Lagunen Taldeko kide izanik eta 2015/2016 agintaldian zehar Segurtasun-Kontseiluko kide ez iraunkorra denez ere, PREMIAZ eskatzen diogu:

- 1975 ezkerro bukatugabe dagoen deskolonizazio prozesuari amaiera emateko bere erantzukizuna BETETZEA, Herri Sahararraren borondatearen adierazpen libre eta benetakoa ziurtatuko duen erreferenduma ospatuz.

- Deskolonizazio eta Lurralde Ez Autonomoen kontuetan Nazio Batuek finkatutako doktrina BABESTEIA. Horretarako Nazio Batuen Batzar Orokorraren 2625 Erabakiak zera adierazten du: “Herri baten determinazio askerako eskubidea gauzatzeko bideak Estatu subirano eta independentea, Estatu independente batekin elkartzea edo integratzea, edo herri batek libreki onartutako bestelako izaera politiko bat izango dira”. Hau da hain zuzen ere autodeterminazioaren edukia.

- Bakea eta giza eskubideen babeserako, MINURSOri (Mendebaldeko Saharako Referendumerako Nazio Batuen Misioa), lurraldean dagoen Nazio Batuen presentzia bakarrari, kompetentziak esleitu diezazkioten ARDURATZEA, saharar populazioaren eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak babestu eta sustatu ditzan .

2.- Akordio hau ondoko helbidetara bidaliko dugu:



Usurbilgo Udala



- a) **ERREGE-ETXE ESPAINIARRA**  
Zarzuélako Jauregia. Pardo Errepidea s/n. 28071 Madril
- b) **ESPAINIAKO GOBERNUAREN PRESIDENTZIA**  
Moncloa. Avda. Puerta de Hierro, s/n. 28071 Madril
- c) **KANPO-ARAZOETAKO ESPAINIAKO MINISTERIO**  
Probintziako plaza, 1. 28012 Madril
- d) **ESPAINIAKO MISIO IRAUNKORRA NAZIO BATUETAN**  
245st 47th Street, 36th Floor. New York, NY 10017. EEBB”

Bozketak honako emaitza eman du:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luis mari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, mozioa aho batez onartu da.

### **8.3.- USURBILGO EHBILDU ETA EAJ-PNV UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA: TORTURAREN AURKAKO ETA GIZA ESKUBIDE GUZTIEN ALDE.**

Josu Portuk mozioa irakurri du.

Batzarkideek, mozioa aztertu dute eta gehiengoz onartu dute honako testuaren arabera:

#### **“TORTURAREN AURKAKO ETA GIZA ESKUBIDE GUZTIEN ALDEKO MOZIOA**

Otsailaren 13an 34 urte bete ziren Joxe Arregi hil zenetik Polizia Nazionalaren eskutan 9 egun eman ondoren. Harrez geroztik tortura urtetik urtera salatu dugu, kalean eta erakundeetan. Zentzu horretan, Euskal Herrian milaka eta milaka herritarrek salatu dute tratu txarrak jasan izana Estatuko polizia indarren eskutik.

Gainera, aurten jakin dugu Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Espainiako Erresumaren aurkako kondena-epai berri bat eman duela euskal herritar batek salatutako torturak ez ikertzeagatik. Epai honekin, Giza Eskubideen Auzitegiak dagoeneko bost kondena-epai eman ditu Espainiako Estatuaren aurka, euskal herritarrek aurkeztutako tortura-salaketak ez ikertzeagatik.

Horregatik guztiagatik, Euskal Herrian oso testuinguru garrantzitsu batean gaudela aintzat hartuta, non oraina eta etorkizuna eraiki nahi dugun giza eskubideen errespetuan oinarrituta, Usurbilgo Udalak erabaki du, mozio honen bitartez:

1. Komisarietan tratu txarrak ahalbidetzen dituzten egun indarrean dagoen



Usurbilgo Udala



legedia behingoz eta behin betiko indargabetzeko eskatzea, Lege Antiterrorista indargabetu eta atxilotuen inkomunikazioa bertan behera utziaz.

2. Funtsezkoa den eskubide honen urraketa pairatu duten pertsonen sufrimendua aitortu eta erreparatzea.
3. Auzitegi Nazionalari eskatzen dio tortura eta inkomunikazioa pairatu dituzten atxilotuen kontrako prozesu judizial guztiak berrikusi eta bertan behera utz ditzala.
4. Akordio honen berri ematea.”

Bozketak honako emaitza eman du:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Josune Urkola Larrarte.

Aurkako botoa: Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, mozioa gehiengoz onartu da.

#### **8.4.- EHBILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA: JAURLARITZAK BULTZATU DUEN UDAL LEGE EGITASMOAREN AURREAN.**

Alkateak mozioaren sarrera laburtzeko zio nagusiak azaldu ditu. Udal Lege egitasmoaren aurrean duten kezka eta desadostasuna azaldu nahi dituztela adierazi du.

Alde batetik, legeak berak parte-hartzeaz asko hitz egiten duela esan du baina aldiz legearen kudeaketan lege honen onuradun edo kaltetu izango direnei, hau da, udalei ez zaiela parte-hartzeko aukerarik ematen. Legearen lanketan ere udalen kezka eta beharrei entzuteko ahaleginik ez dela egin salatu du. Udal lege bat egiteko orduan udalei hitza eman behar zaiela uste dute.

Bigarren arrazoa finantziario eredu dela dio. Udalei ematen zaizkien eskumen berriei buruz esan du batzuk ondo daudela, baina beti ere finantziario hori nondik eta nola etorriko litzatekeen zehaztuz, eta ez dela hori kasua aipatu du.

Hizkuntzari dagokionez, indarrean dagoen Euskararen Legea hartzen duela oinarri adierazi du eta Udal Lege honetan hizkuntzaren erabilerarekiko gaian euskaraz hitz egiteko borondaterik ez duten pertsonen nolabait beto eskubidea ematen diela. Usurbilen kasuan, euskaraz bizi den udalerrin honetan, erabat kontrakoa litzatekeela dio



Usurbilgo Udala



zeren lege honek ez baititu bermatzen euskaldunen eskubideak eta horretarako aukera garrantzitsu bat galdu egiten dela gaineratu du.

Udal autonomi mailari dagokionean, autonomi horien defentsa aipatzen dela behin eta berriz, baina horretan geratzen direla adierazi du. Badirela lege sektorial batzuk udalaren autonomi hori paper bustian utzi dezaketena eta hori dela azpimarratu du lege on batek ekidin beharko lukeena eta lege honek ez duela hori egiten esan du.

Bestalde, Eudelen gailentasuna ere nabaria dela esan du. Mintzakide bakar bezala agertzen dela eta ez dela arrazoizkoa ezta juxtua ere salatu du, udal elkarte bat baino gehiago egon daitekeelako eta izendapen zehatza egiten delako.

Toki erakundeei buruz esan du lege honek ez dituela kontutan hartzen udalaz azpiko erakundeak, Arabako eskualdeak eta koadrilak kasu. Udalerrri handien ikuspegitik egindako legea dela salatu du, udal txiki eta ertainak alde batera utziz.

Azkenik, mugaz gaindiko erakundetzea ez duela ahalbidetzen adierazi du. Euskal Herriko lurraldeen arteko elkarlan, kohesio eta zubi-lanari buruzko aipamenik ez da egiten eta beraien ustez horrelako lege batek beharko luke.

Hau guztia azaldu ondoren, jarraian mozioan onartzea proposatzen diren puntuak irakurri ditu.

Ricardo Crespok mozioa puntuz puntu bozkatu daitekeen galdetu du. Zehaztu du lehenengo puntuarekin ez dagoela ados, zeren alderdi politikoak urteak baitaramatzate honi buruz eztabaidatzen eta eztabaida hori gehiago luzatzearekin ez dago ados. Hirugarren puntuari dagokionean, nahiz eta ados egon gai horiei buruz eztabaidatu behar dutela, beraiek eman dioten zentzuarekin ez dagoela ados zehaztu du, beraz, puntu horretan abstenitu egingo dela esan du.

Alkateak adierazi du mozioa puntuz puntu bozkatuko dela.

Josune Urkolak zehaztu du lege proiektu hau nahiz eta Eusko Jaurlaritzak proposatu, momentu honetan Legebiltzarrean dagoela eta, beraz, Eusko Legebiltzarrari zuzendu beharko litzaiokeela eta ez Eusko Jaurlaritzari.

Alkateak erantzun dio uste duela Legebiltzarra tramitatzen ari dela, baina gero Jaurlaritzara doala. Bietara bidaliko dela esan du.

Batzarkideek mozioa aztertu dute eta honako testua onartu dute:

**“JAURLARITZAK BULTZATU DUEN UDAL LEGE EGITASMOAREN AURREAN**



Usurbilgo Udala



Eusko Jaurlaritza bultzatzen dabilen Udal Lege egitasmoaren aurrean Usurbilgo Udalak zera adierazi nahi du:

Udal Lege egitasmo hau berandu dator. 35 urte kosta izan zaio Jaurlaritzari egitasmo hau martxan jartzea. Eta denbora honen ondoren gauzak ongi egin eta protagonismoa udalei eman ordez, presa handiekin jarri da martxan. Hainbeste denbora pasa ondoren merezi zuen lasaitasunez, modu zabalean eta sakonki zein Udal eredu nahi dugun eztabaidatzea. Horren ordez uneko interes politiko eta "presak" agindu dute. Udalen ordezkarien ahotsa zuzenean entzuteko eta udal ordezkarien ekarpenak biltzeko ez da inolako mekanismorik abian jarri. Ez da zilegi udalengan halako eragina izango duen egitasmo bat aurrera eramateko udalen parte-hartzerik ez bilatzea.

Lege egitasmoak pate-hartzeaz asko hitz egiten du. Aldiz, legearen kudeaketan lege honen onuradun/kaltetu nagusi izango direnei ez zaie parte hartzeko aukera berezirik eman. Legearen lanketan ez da udalen kezka, behar edo iradokizunik jasotzeko ahaleginik egin. Legearen prozedura parlamentarioan ere ez da norabide horretan urratsik aurreikusten. Udalen ordezkariak guztia EUDELen esku uzten da. Zoritxarrez, gaur egun EUDELeak ez ditu EAEko udal guztiak ordezkatzeko. Udal eta udal ordezkarien parte-hartzea ezin daiteke soilik EUDELen ekarpenetara mugatu. Udaletan lanean diharduen kidegoarengana zabalduko diren bestelako mekanismoak ezinbestekoak dira. Gainontzean, egitasmo honek hastapenetik konpon gaitza den arazoa izango du bere baitan.

**LEGEAK PROPOSATZEN DUEN FINANTZIAZIO EREDUA:** Udalei hainbat eskumen berri bereganatzeko aukera onartzen zaie. Aitzitik, ez da oso argi geratzen eskumen horiek guztiak garatzeko finantziario bide berriak zeintzuk izango diren. Aurreikuspen batzuk egiten dira baina oso azaletik. Horrekin udalak gaur eguneko egoera berdinean geratzen dira. Eskumenekin batera finantziarioak iturri berriak aurreikusi beharko lirateke. Bata bestea gabe egiteak desoreka handiak sortzen dituelako.

Bestalde, jada udalek ez dagozkien baina garatzen dituzten eskumenak onartzen zaizkie, baina finantziario bide berririk ez. Tamalez, hori horrela hainbat udalek ezingo liokete gaur egungo egoerari eutsi.

Ez da instituzioen arteko kuota eguneratu edo egokitzeko urratsik ematen. EAEko erakundeen arteko baliabideen banaketa Ekarpenean Legearen arabera da. Bertan koefiziente bertikala eta horizontalen bidez banatzen dira baliabideak. Eusko Jaurlaritzak %70,04 jasotzen du eta gainontzeko %29,96 Aldundien eta Udalen artean banatzen da. Koefiziente horien moldaketa edo eguneratzeak ahalbideratu beharko lituzke eskumen berriak garatzeko finantziario nahikotasuna.

**HIZKUNTZA:** Indarrean dagoen euskaren legea oinarritzat hartuta, Udalen Lege honetan, hizkuntzaren erabileran, euskaraz hitz egiteko borondaterik ez duten pertsonen eskubideak lehenesten dira. Era berean Euskara hutsean bizi nahi duten herritarren eskubideak bortxatuz. Udalek euskara hutsez jarduteko duten borondatea





Usurbilgo Udala



indartu eta babestu egin behar da. Lege honek ez du bere horretan hori bermatzen eta horretarako aukera bikaina galtzen da. Hizkuntz eskubideen bermean aurrera urratsak eman behar dira. Urrats horiek legeak berak espresuki bildu behar ditu.

**UDAL AUTONOMIAREN DEFENTSA:** hitzaurrean adierazpen garrantzitsuak egiten dira norabide horretan. Ildo beretik, artikulatuak ere hainbat aipamen gordetzen ditu. Tamalez, hori guztia filosofia hutsean geratzen da. Momentu honetan badira zenbait lege sektorial tramitazioan (EAEko portuen kudeaketarako lege egitasmoa, Funtzio publikoko legea,...) udalen hainbat eskumen bertan behera utziko lituzketenak. Hori da ekidin beharreko jarduera. Izan ere, lege honetan autonomiaren defentsa egiteak ez du ezertarako balio gero praktikan beste lege sektorial batzuen bitartez urratzen bada. Hitzaurrean ez ezik, artikulatuaren bidez ere bermatu behar litzateke hori guztia. Udal lege honek lege marko izaera izan dezan neurriak hartu behar dira. Hartara, gerora abiarazten diren lege sektorial guztiek lege egitasmo hau errespetatu beharko lukete.

Bestalde, udalek eskumen berriak eskuratzea euren kaudimenarekin lotu nahi du legeak. Hori udalen autonomia defendatzearekin zuzenean kontrajartzen da. Udalek kudeatu beharreko eskumenen ardatzak ezin du ogasun baldintzetan oinarritu. Autonomia lokalaren defentsak beste oinarri batzuk eduki behar ditu: gertutasuna, zerbitzuen kalitatea, herritarren onura,...

Lege honek salto kualitatibo bat suposatu beharko luke. Zoritxarrez alor jakin batzuk arautzera mugatzen da. Oinarrizko legedia estatukoak izaten jarraituko du. Hortaz, EAEko udalen inguruabar guztiak arautzeko erronkari eutsi ordez, bestelako interesak ahalbideratzen dira. Bien bitartean, EAEko udalek legeri espainiarrera erremittitzen jarraitu beharko dute.

**EUDEL:** erakunde honen aldeko diskriminazio positiboa burutzen da lege egitasmo honetan. Lege honek udalen mintzakide bakartzat, hartu nahi du EUDEL. Aitzitik, EUDELek ez ditu EAEko udalen %40 ordezkatzen. Udalen ordezkaritza burutzen dituen elkarteez hitz egin beharko luke legeak eta ez EUDELi buruz espresuki. Udalen kontrolerako urrats garbia da horrekin guztiarekin eman nahi dena. Hori ez zaigu inondik inora bidezko iruditzen.

**TOKI ERAKUNDEAK EZ DIRA AINTZAT HARTZEN:** tokiko erakundeen legea izan ordez udalen lege egitasmoa bultzatu nahi izan da. Udalez azpiko erakundeak ez dira aintzat hartzen eta horiek gure herrien antolaketan izan duten garrantzia ez da ageri. Gero eta indar handiagoa duten eskualdeen eta kuadrilen errealitateari ere ez zaio heltzen. Gainera ez da udal eta foru instituzioen artean dagoen errealitatean sakontzeko urratsik ematen.

**HERRITARREN PARTEHARTZEA:** herritarrengandik gertuen dauden erakundeak izanik herritarrekin zuzenean lan egiteko bitartekoak jarri eta sakondu behar dira. Kultura berri bat sustatu behar da. Horretarako lege egitasmo hau erabakigarria izan



Usurbilgo Udala



daiteke. Legeak parte-hartzeari aipamen bat egiten badio ere, ez du behar adina baliabide jartzen horretarako. Aukerazko tresna bezala aipatzen da. Urrats zehatzak emateko baino espedientea kunplitzeko barnebiltzen ditu parte-hartzeari buruzko edukiak.

Bestalde, ez da ezer egiten udal funtzionamenduan herritarren parte-hartzea ahalbideratzeko: ez plenoan, ez batzorde informatiboetan,... Herritarrentzat intrintsekoak beharko luketen hainbat eskubideren (informaziorako eskubidea, aintzat hartua izateko eskubidea,...) inguruan ez da aipamen bakar bat egiten.

**EUSKAL HERRIKO BESTE INSTITUZIO PUBLIKOekin HARREMANITZEKO NEURRIAK:** ez da inolako aipamen zuzenik egiten Euskal Herriko beste herrialdeetako instituzio publikoekin harremanak ahalbideratzeari begira. Gure iritziz hori sekulako gabezia da. Lege egitasmo hau probestu beharko genuke harreman inter-instituzional guztiak ahalbideratzeko. Bai instituzio nafarrekin eta bai iparraldeko instituzioekin. Gaur egun hainbat egitasmo martxan dira Euskal Herriko beste herrialdeetako instituzioekin elkarlanean gauzatzen ari direnak. Horiek, berriz ere, arauketa zehatzik gabe eta, larriagoa dena, inolako bermerik gabe geratuko lirarteke.

Horregatik guztiatik, Usurbilgo Udaleko Osoko Batzarrak honako puntuak onartu ditu:

1. Usurbilgo Udalak Jaurlaritzari lege egitasmoaren prozeduran epe luzapen bat egin dezala eskatzen dio, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Udalei ekarpenak egin ahal izateko aukera irekiz.
2. Usurbilgo Udalak, Jaurlaritzari Udalen aldetik egiten diren ekarpenak bideratu, sakondu eta eztabaidatzeko prozedura aurkeztu dezan eskatzen du.
3. Usurbilgo Udala, mozio honen zioen atalean aipatzen diren gaien inguruan eztabaidatu, irizpideak adostu eta ondorioak bideratzeko bitartekoak jartzeko eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailburuari.
4. Udalak, Udal zein Toki Entitateen autonomia indartzeko norabidean urratsak emateko deia egiten du. Orain artean udalak, egitura instituzionalaren azken terminalak izan dira eta egoera hori aldatzea funtsezkoa da. Subsidiaritate Printzipioa oinarritzat hartuta, herritarrengandik gertuena dauden instituzioak izaki, Udalak zein gainerako Toki Entitateak sendotzearen aldeko apustua egitea ezinbestekoa da.
5. Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailburuari bideratuko zaio.

Bozketa puntuz puntu egin da emaitza honekin:

**1. puntua:**



Usurbilgo Udala



Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza eta Jose Ramon Furundarena Salsamendi.

Aurkako botoa: Ricardo Crespo Rubio.

Abstentzioa: Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Josune Urkola Larrarte.

Beraz, 1. puntua gehiengoz onartu da.

## **2. puntua:**

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi eta Ricardo Crespo Rubio.

Abstentzioa: Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Josune Urkola Larrarte.

Beraz, 2. puntua gehiengoz onartu da.

## **3. puntua:**

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza eta Jose Ramon Furundarena Salsamendi.

Abstentzioa: Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, 3. puntua gehiengoz onartu da.

## **4. puntua:**

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi eta Ricardo Crespo Rubio.

Abstentzioa: Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Josune Urkola Larrarte.

Beraz, 4. puntua gehiengoz onartu da.



Usurbilgo Udala



## 5. puntua:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi eta Ricardo Crespo Rubio.

Abstentzioa: Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Josune Urkola Larrarte.

Beraz, 5. puntua gehiengoz onartu da.

Batzarra amaitzeko, Nagore Sarasola idazkariak eskerrak eman dizkie korporazio honi, aurreko legegintzaldiko korporazioari eta udal lankideei.

**Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:50ean eta bilera agiri hau jaso da, Alkateak izenpetuz eta nik, Idazkariak, ziurtatuz.**